

euskaragileak

enpresen batzordea

baieuskarari.eus/eu/euskaragileak

Bai Euskarari Elkarrean
sustatutako proiektua



euskaragileak

enpresen batzordea

AURKIBIDEA

EUSKARAGILEAK ENPRESA BATZORDEA	03
BATZORDEAREN FUNTZIOAK	04
EKIMENAK ETA EREDUAK	05

Euskaragileak enpresa batzordea

[Lan-mundua euskalduntzeko adierazpenean](#) (2013) jaso zen bezala, euskaraz saldu eta lan egin nahi duten enpresen sarea indartzea eta beren ereduak ezagutzera ematea lagungarria da enpresei begirako lanketa egiteko. Asmo horrekin jaio zen 2015ean [Euskaragileak proiektua](#); enpresen euskalduntzean aurreratuta dabiltzan eta euskararen erabilera normalizatua duten Euskal Herriko zenbait enpresek osatzen dute Euskaragileak enpresen batzordea.

2018ra arte, Kontseiluak kudeatu zuen proiektua eta gaur egun Bai Euskarari Elkartearen ardura da; arlo sozioekonomikoaren espazioak euskaraz betetzeko Bai Euskarari Elkartea egiten ari den ekarpen berrietako bat da orain Euskaragileak.

Gaur egun ondorengo enpresek osatzen dute batzordea:



Batzordearen funtzioak

1 ● **Eragile aktiboa izatea.** Lan-munduaren euskalduntzean zeresana duten beste eragileen hizkuntza-politiketan eragiten saiatuz.

2 ● **Eredugarri izatea.** Enpresa euskaragileak eginiko ibilbideari partekatuz ezagutza aberastea eta enpresa-euskaragile gisa, eredugarri izateko eta euskararen normalizazioaren ikuspegitik, egokienak diren portaerak izateko 'erantzukizuna' betez.

3 ● **Enpresen arteko sinergiak sustatzea.**

4 ● **Enpresa berriak erakartzea bitartekari eta sustatzaile izatea.**

5 ● **Enpresa-euskaragileak eginiko bidea balioan jartzea, onurak erakustea eta prestigioa ematea.**

Ekimenak eta ereduak

euskaragileak
enpresen batzordea



Bai Euskarari Elkarteak
sustatutako proiektua



ENPRENTZAT EREDU DIREN DOKUMENTUAK ETA PROGRAMAK SORTU DITUGU



LANGILE
BERRIEN
**HARRERA-
PLAN
EREDUA**

PRAKTIKAK
EUSKARAZ
Hezkuntza zentroen
eta enpresen arteko
**HITZARMEN
EREDUA**



HORNITZAILEENTZAKO
**GUTUN
EREDUA**

2:30 ordu

Ongi etorria eta sarrera.
Enpresara bisita.

Bilera: enpresaren aurkezpena.
Bilera: Euskara-planaren bilakaera.
Bilera: Euskara-planeko lanketa.

Bilera: Esperientzia partekatu + galde-eskeak
Berba eta kafea


HELBURUAK

A MULTZOKOAK

- Euskaragileen esperientzia eta ezagutzatik ikasi.
- Prozesuan aurrera egiteko motibazioa.
- Laguntza eta aholku pertsonalatuak.

EUSKARAGILETU PROGRAMA

BISITAK



2:15 ordu

Ongi etorria eta sarrera.
Enpresara bisita.

Bilera: enpresaren aurkezpena.
Bilera: bideo-emanaldia.
Bilera: Euskara-planaren onurak.

Bilera: galde-eskeak
Berba eta kafea

B MULTZOKOAK

- Euskaragileen normalizazio-prozesuaren onurak eta etekinak ezagutu.

BATZORDEKO KIDEAK:



Enpresentzat eredu diren dokumentuak eta programak sortu ditugu:



Langile berrien HARRERA-PLAN EREDUA

Enpresa guztietan langile berriak kontratatu eta berauek euren jardunean kokatzeko prozesuak garrantzia berezia du. Langile horiek enpresan egoki integratzeko eta ahalik eta arinen euren zereginak behar bezala bete ahal izateko prozesua izaten da hori.

Prozesu horretan garrantzia berezia du enpresaren baitan euskararen normalizazioari eta, oro har, hizkuntzen kudeaketari ematen zaion garrantzia eta tratamendua transmititzeak. Izan ere, sartu berria denari lankideekin harremanean hasiera beretik hizkuntzak kudeatzea egokituko zaionez, horren inguruko irizpideak ezagutzeak bere integrazioa errazten eta azkartzen lagun baitezake. Horretarako beraz, langile horiei begira garatu ohi den **harrera-planean hizkuntzaren aldagaia lantzeko eredu bat** proposatzea erabaki zen.



Praktikak euskaraz egiteko hezkuntza zentron eta enpresen arteko HITZARMEN EREDUA

Euskaragileen batzordean enpresek ikastetxeekin duten harremanari garrantzia berezia eman zaio. Batetik, bi erakundeen arteko hizkuntza-harremanen ikuspegitik, baina batez ere, lan-mundura jauzia ematera doazen ikasle edota langile berriengan eragitearen ikuspegitik. Hori lantzeko, enpresen eta ikastetxeen arteko lankidetzak hitzarmenak adostea proposatzen da. Osatu den hitzarmen-ereduan, beraz, bi entitate horien arteko lankidetzarako eredu posible bat mahai gaineratu nahi da. Horrela, aipatutako helburua ipar izanda, bi aldeek egin dezaketen ekarpena zehazteko eta sistematizatzeko lankidetzak adostuz. Bai eta lankidetzak horri egonkortasuna eman eta jarraipen zein hobekuntza bideak definituz. Proposamenean, lankidetzak jaso ditzakeen alderdi desberdinak eta konpromisoak zehazten dira. Ulertuta, halere, kasu eta egoera zehatzen arabera moldatu litekeen hitzarmen-eredua dela osatutakoa.



Hornitzaileentzako GUTUN EREDUA

Enpresen jarduera euskaraz garatzeko eta lan-munduaren euskalduntzean laguntzeko garrantzitsua da enpresek euren hornitzaile nagusiei zerbitzua euskaraz eskaintzeko eskaera luzatzea.

Horretarako bi bide jorratu dira; batetik, enpresa bakoitzak euren hornitzaileekiko harremanak euskaraz izan daitezen lanketa propioa egiten laguntzeko dokumentua osatu du. Bestetik, komunean dituzten hornitzaileekin prozesu bat abiatu zen euren zerbitzua euskaraz jaso dezaten konpromisoak hartu eta urratsak eman ditzaten

Hornitzaileei bidaltzeko gutun-eredua sortu da.

EUSKARAGILETU PROGRAMA

Euskaragileak euskararen normalizazio prozesuaren inguruko esperientzia zabala dute eta beraz prozesu horrek izan ditzakeen gorabeherak eta horiei zer-nola aurre egin izan dieten ezagutzeak, balio handiko jakituria eskaintzen die. Ezagutza eta esperientzia hori guztia, enpresa munduan hainbatetan aipatu ohi den *Know How* hori guztia, bide bera abiatzeko asmoa duten edota bidea egiten ari diren beste enpresa batzuentzat biziki interesgarria da. Bai beraiek abian dituzten prozesuak eta planak hobetzeko, bai eta bide hori abiatzeko motibazioak topatzeko ere. Horretarako, Euskaragileekin beste enpresa batzuen bisitak jasotzeko sarea osatu eta lanketa sistematizatu nahi da programa honen bidez.

EUSKARAGILETU PROGRAMA

ENPRESEN ESPERIENTZIAZ MAMITU ETA EUSKARAGILETU



NORTZUK DIRA EUSKARAGILEAK?

- Euskaragileak prozesu berriak abiatzen dituzten enpresak.
- Euskararen normalizazio prozesuan ari diren enpresak.



Prozesuaren
ESPERIENTZIA
zabala



Gorabeherari aurre
egiteko ezagutza
eta JAKITURIA



Ikasitakoarekin
aberastutako
EZAGUTZA

INTERESGARRIA
BESTE ENPRENTZAT

Euskararen planak hobetzeko edo sustatzeko.
Zehaztasun aurre egiteko.

EUSKARAGILETU
PROGRAMA

PARTAIDEAK



EUSKARAGILEAK
Esperientzia eta ezagutza zabala dute.



A MULTZOAK
Euskararen plana baduten enpresak.



B MULTZOAK
Euskararen plana ez duten enpresak.

HELBURUAK

Euskaragileekin esperientzia eta ezagutzeak elkartrik partatu.

Prozesuaren berri egiteko motibazioa. Laguntza eta aholku pertsonalizatuak.

Euskaragileekin normalizazio prozesuaren osatzea eta enpresaren eragindak.

BISITAK

2:30 ordu

Ongi etorria eta saioa.
Enpresaren bisita.

Bilera: enpresaren aurkezpena.
Bilera: Euskararen planaren bilaketa.
Bilera: Euskararen planaren lanketa.
Bilera: Esperientzia partekatuz + galde-erreak
Berba eta kafea

2:15 ordu

Ongi etorria eta saioa.
Enpresaren bisita.

Bilera: enpresaren aurkezpena.
Bilera: bidetxo-emanaldia.
Bilera: Euskararen planaren onurak.
Bilera: galde-erreak
Berba eta kafea

A

EUSKARA PLANA



B

EUSKARA PLANA



BATZORDEKO KIDEAK



Bai Euskaragileekin
sustatutako proiektua



euskaragileak
enpresen batzordea

baieuskarari.eus/eu/euskaragileak

Bai Euskarari Elkarrekin
sustatutako proiektua

